

## **FUNTSEZKO JARDUERAK**

Lehenik eta behin, tramankulu hau denon artean diseinatuko dugu eta zer itxura izango duen eta zer materialekin sortua izango den argi eduki ostean, Txinako enpresa baten eskuetan utziko dugu BiziClean bizikleta ekoizteko ardura. Urte hasieran, hau da, urtarrilean toki bakarrean ezarrita edukiko dugunez zerbitzua, 10 bizikleta bakarrik beharko ditugu. Denborak aurrera egin ahala, establezimendu berriak irekitzen joango gara. Apirilean lokal berri bat irekiko dugu eta, irailean hirugarrena. Guztira 30 bizikleta eskatuko dizkiegu hiru epe desberdinetan, 10 urtarrilean, 10 apirilean eta 10 irailean.

Ondoren, gure lokaletara bidaliko dituzte, bertan instalatu eta erabiltzeko prest utziko dituzte.

Arazo bat balego lokalean, gure telefono zenbakia edukiko lukete eskuragarri webgunean. Deitu besterik ez dute, kontratatutako langileak arazoari aurre egiten laguntzeko. Arazoa fabrikarena balitz, Txinako enpresara itzuliko genuke konpontzera eta matxura oso larria balitz, berri bat erosiko genuke.